

RASFF TXOSTENA


ALERTAK eta JAKINARAZPENAK
ANIMALIEN ELIKADURA
2015eko HIRUGARREN LAUHILEKOA

Jakinarazpenak sailkatzea
Jakinarazpenen jatorria
Jakinarazitako arriskuen tipologia
Tartean dauden lehengai eta pentsuak
Laburpen-taula

JAKINARAZPENAK SAILKATZEA

2015eko hirugarren lauhilekoan, animalien elikagaiei buruzko **78 jakinarazpen** egin dira. Horietatik **6 alertak izan dira, 34 informazio-jakinarazpenak eta 38 mugan egin diren ukapenak.**

Egindako kontrol motari dagokionez, **43 jakinarazpen Mugako Ikuskapen Postuek (MIP)** igorri dituzte, **21** pentsuen ekoizpen-kateko zenbait arlotan egindako **Kontrol Ofizialek**, eta **14 autokontroletan detektatu dira** eta industriak berak igorri ditu.



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Epe horretan jasotako **78** jakinarazpen horietatik **53** (% 68) **beste herrialde batekoak** izan dira. Jakinarazpen gehien herrialde hauek egin dute: **23 Bielorrusiak, 5 Brasilek, eta 4 Mauritaniak.**

Bielorrusiaren kasuan, jakinarazpen guztiak **koltza-taloetan salmonella** agertzearekin lotuta daude. **Brasilen** kasuan, **2 jakinarazpen egin dira kakahueteetan B1 aflatoxina agertzeagatik, beste 2 jakinarazpen egin dira zakurrentzako mastekagarrietan salmonella agertzeagatik, eta beste jakinarazpen bat akuikulturarako pentsuetan dioxina maila handiak agertzeagatik.** Azkenik, **Mauritaniari** dagokionez, jakinarazpen guztiak **arrain-irinean salmonella** agertzeagatik egin dira.


Europako herrialdeei dagokionez, berriz, **Italia (7)** izan da jakinarazpenekin lotutako produktu gehien **jatorrizko** herrialdea.

RASFFi **jakinarazpen gehien** egin dion herrialdea **Letonia** izan da: **guztira 23** egin ditu. Letoniaren ondoren, **Belgikak (10), Alemaniak (10) eta Erresuma Batuak (8)** igorri dituzte gehienak.

JAKINARAZITAKO ARRISKUEN TIPOLOGIA

Denbora-tarte horretan atzemandako arrisku gehienak **mikrobiologikoak** izan dira (**% 64**). **Mikotoxinek** jakinarazpenen **% 9** eragin dituzte, eta **PAEek % 5**.


Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, **salmonellak** eragin ditu jakinarazpen gehienak (**50 jakinarazpenetatik 47**). **Salmonella** aurkitu den lehengaien artean, nabarmentzekoa da **Bielorrusiako koltza-taltoa**.



TARTEAN DAUDEN LEHENGAI ETA PENTSUAK

Produktuen arabera, **lehengai** dagozkie jasotako **jakinarazpenen % 80**, **loditzeko animalientzako** pentsu konposatuei **% 6** eta **laguntza-animalientzako** produktuei **% 14**.

Jakinarazpenetan zerikusia izan duten produktuei dagokienez, honako lehengai hauek nabarmendu dira hurrenkera honetan: **koltza-taltoa (24)**, **arrain-irina (7)**, **zakurrentzako mastekagarriak (6)** eta **artoa (5)**.



AURREKO LAUHILEKOAREKIN ALDERATZEA

- 2015eko hirugarren lauhilekoan **78 jakinarazpen** egin dira, eta 2015eko bigarren lauhilekoan, berriz, 59 jakinarazpen.
- Eginiko kontrol motari dagokionez, aipatzekoa da jatorria mugako postuetan detektaturiko jakinarazpenen kopuruak gora egin duela (**% 22tik % 55era**).
- Hirugarren lauhileko honetan, jakinarazpenen % 68ren jatorria beste herrialde bat izan da (2015eko bigarren lauhilekoan % 37 izan ziren). **Jakinarazpen gehienetan**, tartean dagoen produktuaren jatorria **Bielorrusia da, eta Letoniak jakinarazi ditu (salmonella koltza-taloetan)**.

Eranskina. RASFFren bidez 2015eko 3. lauhilekoan animalien elikadurari buruz egin diren informazio-alerten eta jakinarazpenen laburpen-taula.

ARRISKUA	MOTA	Zk.	PRODUKTUAK	Zk.	ESPEZIEA
Mikrobiologia	Salmonella	46	Ahate-lepoak	1	<i>Salmonella Givent</i>
			Haragi-irina	1	<i>Salmonella spp.</i>
			Koltza-irina	1	<i>Salmonella Senftenberg</i>
				1	<i>Salmonella typhimurium</i>
			Odol- eta hezur-irina	1	<i>Salmonella spp.</i>
			Arrain-irina	3	<i>Salmonella spp.</i>
				1	<i>Salmonella Bredeney</i>
				1	<i>Salmonella Grupo C</i>
			Zakurrentzako mastekagarriak	3	<i>Salmonella spp.</i>
				1	<i>Salmonella Lexington</i>
			DDGS pelletak	1	<i>Salmonella kedougou</i>
			Eraldatutako animalia-proteina	1	<i>Salmonella Agona, Salmonella Rissen, salmonella Tennessee</i>
				1	<i>Salmonella typhimurium</i>
			Zakurrentzako pentsua	1	<i>Salmonella Münster</i>
			Soja estrusionatua	1	<i>Salmonella Mbandaka</i>
			Koltza-taloa	17	<i>Salmonella Lexington</i>
				1	<i>Salmonella spp.</i>
				2	<i>Salmonella Derby</i>
				4	<i>Salmonella Derby, Salmonella Lexington</i>
			Ekilore-taloa	1	<i>Salmonella spp.</i>
Soja-taloa	1	<i>Salmonella Mbandaka</i>			
Garia	1	<i>Salmonella Indiana</i>			

ARRISKUA	MOTA	Zk.	PRODUKTUAK	Zk.	ESPEZIEA
Mikrobiologia	Salmonella + enterobacteriaceae	1	Zakurrentzako mastekagarriak	1	<i>Salmonella spp. + enterobacteriaceae</i>
			Zakurrentzako gailetak	1	<i>Enterobacteriaceae</i>
	Enterobacteriaceae	3	Zakurrentzako saltxitxak	1	<i>Enterobacteriaceae</i>
			Serum kontzentratua	1	<i>Enterobacteriaceae</i>

ARRISKUA	MOTA	Zk.	PRODUKTUAK	Zk.
Mikotoxinak	B1 aflatoxina	7	Kakahueteak	2
			Artoa	4
			Ekilore-hazia	1
Dioxinak	Dioxinak	3	Sagar-pulpa deshidratatua	1
			Akuikulturarako pentsua	1
			Arrain-olioa	1
Metal astunak	Beruna	2	Ekilore-taloa	1
			Ahuntz/ardientzako pentsua	1
	Merkurioa	3	Arrain-irina	1
			Erremolatxa-pulpazko pelletak	1
			Pentsu disolbagarria	1
PAE	PATak	4	Akuikulturarako pentsua	3
			Arrain-irina	1
Beste batzuk	<i>Ambrosia spp.</i> -ren presentzia	2	Ekilore-haziak	1
			Artoa	1
	Gorputz arrotzen kutsadura	1	Ekilore-taloa	1
	Osasun-ziurtagiri gaititu gabeak	2	Zakurrentzako pentsua	2
	Pestiziden presentzia - imidacloprid	1	Liho-haziak	1
	Pestiziden presentzia - tolfenpirad	1	Zitriko-pulpazko pelletak	1
	Legez kanpo inportatua	1	Zakurrentzako mastekagarriak	1
	Arrain-partikulen presentzia	1	Arrain-proteinen hidrolizatua	1